

KOSTU-EGITURA

Gure proiektuaren funtzionamenduak hainbat gastu eskatzen ditu, eta Aires del Sur-en taldeak kontuan hartu ditu kostu finkoak, aldagarriak eta bestelakoak, proiektuaren iraunkortasuna eta garapena bermatzeko.

Kostu finkoak

Hasierako fasean, gure kostu finko nagusia webgunearen hostinga da. Taldeko kideek bere ekipo informatikoak eta loren aitzak utzitako garajea erabiliko genduke lan egiteko, horrela aurrezpenak lortuz. Hala ere, etorkizunean, proiektua handituz gero, beste kostu finko batzuk egon daitezke, hala nola:

- Ekitaldi-guneen alokairua handitzen bada.
- Seguruen polizak eta baimenak.
- Marketing-estrategia finko bat mantentzea, sare sozialetan eta komunikabide tradizionalen.

Horrela, proiektuaren iraunkortasuna bermatzen dugu, eta gure taldeak aurreikuspen ekonomiko sendoa du.

Kostu aldagarriak

Ekitaldien bolumenaren arabera, hainbat gastu sortzen dira:

- Materialak, margoketak eta oholak tailerrak eta ekitaldiak egiteko.
- Transporte eta logistika, materialak eta ekipamenduak guneetara eramateko.
- Artistak, dantzariak, musikariak eta sukaldariak jasotzen duten ordainsaria, ekitaldien arabera.
- Katering eta gastronomia esperientziak, parte-hartzaile kopuruaren arabera.
- Merchandising produktuak, ekitaldi bakoitzean eta online dendako salmentetan.

Horrela, gure taldeak kostu aldakorak modu eraginkorrean planifikatzen ditu, ekitaldi bakoitzaren arabera egokituz.

Hedapen-ekonomiak eta gastu zeharkakoak

- Gure esperientzia handitzen den heinean, kostu finko batzuk gehiago partekatuko dira, adibidez marketing edo argiztapena, ekitaldi kopuru gehiago izateak kostu unitarioa jaiste ahalbidetuko du.
- Gainera, kontuan hartu ditugu zeharkako gastuak eta ingurumen-kostuak, hala nola garbiketa, segurtasuna, birziklapena eta materialen kudeaketa, gure proiektua iraunkorra eta arduratsua izan dadin.

Laburpen garrantzitsua

Horrela, gure taldeak kostuak modu zuhur eta globalean kalkulatu ditu, bai finkoak eta aldakorrak bai gehigarriak, proiektuaren biziraupena eta hazkundera bermatzeko. Kostuen antolaketa honek gure ekitaldiak kalitate handiz eskaintzea eta esperientzia ahaztezina izatea ahalbidetzen du, publikoari eta bezero korporatiboari zerbitzu osoa eskaintzearekin batera.